Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

Akta 1/2020

**HERRITARGOAREN INFORMAZIO-BATZORDEAK 2020KO URTARRILAREN 23AN EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE CIUDADANÍA EL DÍA 23 DE ENERO DE 2020.**

**BILDUTAKOAK** / **ASISTENTES**:

**BATZORDEBURUA:** / **PRESIDENTA**:

KELTSE EIGUREN ALBERDI andrea

**BATZORDEKIDEAK:** / **VOCALES**:

(Jnak./Andk.) / (Sras./Sres.)

AINHOA GALDUROZ ALVAREZ (EAJ-PNV)
ALVARO GONZALEZ PEREZ (EAJ-PNV)
JANIRE OCIO CELADA (EAJ-PNV)
ARANTZA RICA ALVAREZ (EAJ-PNV)
FRANCISCO JAVIER ELORZA HORMAECHE (PP)
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA (PP)
IBON RODRIGUEZ LARRINAGA (EH BILDU)
ITXASO MASEDA SARATXO (EH BILDU)
ASUNCIÓN OLAETA PÉREZ DE MENDIOLA (PSE-EE)
PAULA AMIEVA CLEMENTE (ELKARREKIN PODEMOS)

**IDAZKARIA** / **LA SECRETARIA**

AURORA ROYO CAÑADAS Andrea

Udaletxeko Osoko Biltzar-aretoan, 2020ko urtarrilaren 23an, Herritargoko Informazio-Batzordea bildu da, 11:07etan, Keltse Eiguren Alberdi andre zinegotzia batzordeburua izanik, eta aurrez aipatutako Udalbatzako kideak bertan direla.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a 23 de enero de 2020, se reúne a las 11:07 la Comisión Informativa de Ciudadanía bajo la presidencia de la concejala doña Keltse Eiguren Alberdi, con asistencia de los corporativos expresados.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Lehendakariak, bilera egiteko legeak agintzen duen adina jende badagoenez, bilkura hastea erabaki du. Horrela, deialdiko Gai-zerrendan barneratutako gaiak jorratzen hasi dira. Honako hau da emaitza:

La Presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose a tratar los temas incluidos en el Orden del Día de la convocatoria, con el siguiente resultado:

**1.- 2019KO ABENDUAREN 16AN EGINDAKO AURREKO BILERAKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA, ZUZEN BADERITZA.**

**1.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR DE FECHA 16 DE DICIEMBRE DE 2019.**

Aurreko batzarraren akta, 2019ko abenduaren 16ko, aho batez onetsi da.

Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior de fecha 16 de diciembre de 2019

**2.- ARLOAREN INFORMAZIO OROKORRA.**

**2- INFORMACIÓN GENERAL DEL ÁREA.**

**2.1.- 2021. urteko parte-hartze izaerako aurrekontuak**

**2.1.- Presupuestos participativos 2021.**

Ainhoa Galduroz Alvarez andreak dagozkion azalpenak eman ditu, eta adierazi du 4. urtez hasiko dela, eta herritarrek 2021eko proposamenean sartzeko ideiak emango dituztela. Horretarako, hainbat baldintza eskatzen dituzte, eta horiek zerrendatu ditu eta nortzuek har dezaketen parte aipatu du. Triptiko bat buzonatu da eta bertaratutakoei eman zaie; adierazitako puntuetan ere jarri da herritarren eskura. Postontziak jarri dira adierazitako puntuetan, eta zehaztu du webgunearen eta udalerriko zenbait tokitan jarritako karpen bidez ere ekarpenak egin daitezkeela. Karpa horiek urtarrilaren 29an, 30ean eta 31n jarriko dira, goiz eta arratsaldez. Parte hartzeko epea urtarrilaren 24tik otsailaren 6ra bitartekoa da. Behin ideiak jasota, aztertu egingo dira, eta baldintzak betetzen badituzte, proiektutzat hartuko dira. Hori martxoaren 27tik apirilaren 7ra bitartean izango da; bertan, beste liburuxka bat ezagutarazi eta buzoneatuko da.

Dña. Ainhoa Galduroz Alvarez pasa a dar la explicaciones oportunas indicando que se inicia por 4º año que consistirá en la aportación de ideas por parte de la ciudadanía para ser incluidas en el propuesto 2021. Requieren una serie de requisitos, que relaciona, así como quienes pueden tomar parte. Se buzonea un tríptico que se entrega a los asistentes y se ponen a disposición de la ciudadanía en los puntos indicados. Se habilitan buzones en los puntos que señala e indica que también cabe aportar idas a través de la web y carpas que se instalaran en diversos puntos del municipio los dias 29, 30 y 31 de enero en horario de mañana y tarde. El plazo de participación es del 24 de enero al 6 de febrero. Una vez recogidas las ideas se estudiarán y si cumplen los requisitos serán considerados proyectos. Ésto irá del 27 de marzo al 7 de abril, en que se darán a conocer y se buzoneará un nuevo folleto a este fin.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Paula Amieva Clemente andreak gidalerroak ezarri diren jakin nahi du, aurten ez duelako ikusi beste urte batzuetan bezala TGBn tratatu denik.

Dña. Paula Amieva Clemente quiere saber si se han establecido las directrices, porque este año no ha visto que se haya tratado en JGL como otros años.

Erantzun zaio une honetan ez dagoela erantzuteko behar den dokumentaziorik, eta, beraz, batzordeburuak adierazi dio kontrastatu egingo dela eta dokumentazio guztia posta elektronikoz bidaliko dela. Paulak adierazi du eskertuko lukeela horrela egitea, bihar bertan jarriko baita martxan, eta arraroa iruditzen zaio TGBn tratatu ez izana.

Se le responde que no se dispone en este momento de la documentación necesaria para responder ahora, por lo que la Presidenta le indica que se le contrastará y será remitida toda la documentación vía mail. Dña. Paula manifiesta que agradecería que se hiciese así, puesto que se va a poner en marcha mañana mismo y le parece raro que no haya sido tratado en JGL.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak jakin nahiko luke zer irizpide jarraituko dituzten teknikariek aurkeztutako ideiak proiektutzat hartzea merezi duten baloratzeko, eta hori igortzeko eskatu du.

D. Ibón Rodriguez Larrinaga querría saber cuáles serán los criterios que seguirán los técnicos para valorar si las ideas aportadas merecen ser consideradas proyectos y pide que se le remitan.

**2.2.- Musika ekintzailetza, Paideia fundazioa**

**2.2.- Emprendimiento musical Fundacion Paideia**

Batzordeburuak adierazi duenez, puntu hori azaltzeko, Elena Larburu andreak liburuxka bat banatu du. Liburuxka hori webgunean dagoela dio, jende guztia jakinaren gainean egon dadin, eta azaldu du PAIDEIA fundazio galiziar bat dela, eta kosturik gabeko proiektua egingo duela udalarentzat, lehenago ere egin izan dena Galizian, Katalunian eta Granadan. Getxoko eta Bilboko udalek laguntzen dute, eta espazio fisikoak eskaintzen dituzte, Bilborock aretoan egingo den ekitaldi batekin amaitzeko. Taldeko musika-prestakuntza egingo da ordu batzuetan, bai eta banakako tutoretzak ere, parte-hartzaileek beren musika-jarduera profesionalizatu ahal izan dezaten beren karrerak garatzeko. Ez da disko bat grabatzeko. Fundazioak irakasleak ekartzen ditu, "Primavera pro"ko zuzendaria bezalako musikari ezagunak. Stereosonic ere laguntzen du, inguruko profesionalen proiektua babes dezaten. Aukera horrek

La Presidenta de la Comisión indica que para explicar este punto acude a esta sesión Dña. Elena Larburu, que reparte un folleto, el cual indica que está colgado en la web, para conocimiento general, y explica que PAIDEIA es una fundación gallega, que va a realizar un proyecto sin coste para el Ayuntamiento, que ya se ha hecho antes en Galicia, Cataluña y Granada. Colaboran los Ayuntamientos de Getxo y Bilbao, aportando espacios físicos para su desarrollo de tal forma que culminará con un acto en la sala Bilborock. Se hará formación musical grupal durante ciertas horas y también tutorías individuales para que los participantes puedan se profesionalizar su actividad musical para desarrollar sus carreras. No es para grabar un disco. La fundación trae a los profesores, que son músicos reconocidos tales como la Directora del “primavera pro”. Stereosonic también colabora para que apoyen el proyecto profesionales de la zona.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



kanpoko finantzaketa duten 21 talde edo bakarlari hartzeko aukera ematen du, eta otsailaren amaieratik maiatzaren amaierara bitartekoa da.

Es una oportunidad que da acceso a 21 bandas o solistas con financiación externa, y que va de finales de febrero a finales de mayo.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak foiletoa edo liburuxka euskaraz ere egin dela pentsatu nahi du, baina erantzun zaio ez dagoela euskaraz beste erakunde batek egin duelako, nahiz eta webgunean informazioa euskaraz egon; Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak azpimarratu du hori negoziazioetan kontuan hartu behar zela, eta, gainera, ez dela euskal musikarik aipatzen, bere ezaugarri bereziengatik kontuan hartu beharko litzatekeelako eta hurrengo kasuetarako bilatu beharko litzatekeelako proiektu globalera moldatzeko modua bilatzea, nahiz eta horrek Udalak berak gastu txikiren bat bere gain hartzea ekarri.

D. Ibon Rodriguez Larrinaga quiere suponer que el folleto también se ha hecho en euskera, pero se le responde que no está en euskera porque lo ha hecho otra institución, aunque en la web la información sí que está en euskera; D. Ibon Rodriguez Larrinaga insiste en que esto tenía que haberse contemplado durante las negociaciones, aparte de que tampoco se hace referencia a música euskaldun, que por sus características particulares debería de estar contemplada y que para próximas ocasiones se busque la forma de amoldar estas al proyecto global, aunque eso suponga asumir algún pequeño gasto por parte del propio Ayuntamiento.

Elena Larburu andreak adierazi du banakako tutoretzak musikari euskaldunek emango dituztela.

Dña. Elena Larburu indica que las tutorías individuales si van a ser impartidas por músicos euskaldunes.

## 3.- GALDERA ETA ESKAERAK

## 3.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Batzordeburuak, aldez aurretik, Ignacio Robles Fernandez jaunak osoko bilkuran egindako galdera bati erantzun nahi dio. Galdera hori egoitzaren inguruko isunei buruzko 12/20 polizia-jarduketari buruzkoa da, eta gaia bilkura honetan jorratzeko geratu zen.

La Presidenta, previamente, quiere dar respuesta a una pregunta que se hizo en el pleno por parte de don Ignacio Robles Fernandez, referente a una actuación policial de 20/12 sobre multas en el entorno de la Residencia y quedó pendiente para esta sesión.

Abenduaren 20an, goizeko 11,40ean, auzotarren kexa jaso zen, txarto aparkatutako ibilgailu asko egoísta inguruan zeudelako. Poliziak legearen araberako zigor egokiak ezarri zituen. Jarduna legezkoa da. Zalantzan jar daiteke herritarrenganako hurbiltasun jokabidea izatea, baina jarduketa bera ez, legezkoa delako. Egoitzara doazen bisitarien autoak dira, eta baita bertako langileenak ere. Ezin da hor aparkatu, larrialdietarako ibilgailuei pasatzen utzi behar

El 20 de diciembre a las 11,40 de la mañana se recibe una queja vecinal porque hay muchos vehículos mal estacionados en la zona de a la residencia. La policía impuso las sanciones adecuadas conforme a la ley. La actuación es legal. Se puede cuestionar la cercanía de la conducta hacia la ciudadanía pero la actuación no porque es legal. Se trata de coches de visitantes a la residencia y también de trabajadores de la misma. No se puede aparcar ahí porque hay que dejar

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



zaielako, eta autoek aparkatzen badute, larrialdiak ezin pasa daitezke.

paso a vehículos de emergencia y si los coches aparcan las emergencias no pueden pasar.

Ibon Rodriguez Larrimaga jaunak adierazi du, agian, egoitzak bere aparkalekua izan beharko lukeela. Edo egoitzatik bertatik autoak uzteko leku egokiagoa adieraz dakieke erabiltzaileei.

Don Ibon Rodriguez Larrinaga indica que igual es que la Residencia necesita tener su propio parking. O desde la propia Residencia se puede indicar a los usuarios un lugar más adecuado para dejar los coches.

Keltse Eiguren Alberdi andreak nabarmendu nahi du autoak ondo baino hobeto dakitela hor ezin dela aparkatu eta gaizki aparkatzen ari direla. Eta argi utzi nahi du zigorrak ez zirela ekimen poliziala izan, auzo salaketei men egin zietela baizik.

Dña. Keltse Eiguren Alberdi quiere poner en valor que se trata de coches de personas que conocen de sobra que ahí no se puede estacionar y que están aparcando mal. Y quiere dejar claro que las sanciones no fueron iniciativa policial, sino que atendieron a denuncia vecinal.

Jarraian, gai-zerrendako galderak egin dira.

Acto seguido se pasa a las preguntas incluidas en el orden del día.

**3.1.- PP; Zirkulazioaren etenaldiei buruzko informazioa, Itziar Lopez de Uralderen omenezko XXXVI. Lasterketa dela eta. Sarrera-erregisrroa: 40784**

**3.1.- PP; Pregunta sobre información de los cortes de tráfico con motivo del XXXVI memorial Itziar Lopez de Uralde. Registro de entrada: 40748.**

Francisco Javier Elorza Hormaeche jaunak irakurri du. Eta galdera bizilagun batek egin zuela adierazi du.

D. Francisco Javier Elorza Hormaeche procede a su lectura. E indica que la pregunta la realizó una vecina.

Keltse Eguren Eiguren Alberdi andreak erantzun du. Azaroaren 15ean, Eusko Jaurlaritzak txostena eskatu zion Babes Zibilari, hark baimentzen baititu horrelako kirol-probak. Trafiko Zuzendaritzak probari buruzko datuak argitaratu zituen abenduaren 15ean. Kexaren tokia proba hasi eta 2 kilometrora dago. Trafiko etenaldia ez zen 10 minututik gorakoa izan, parte hartzen zuten pertsonen osotasuna babesteko egin zen. Ibilgailuari esan zioten jarraitu egin behar zuela, lasterketaren burua hurbiltzen ari zelako eta mugitzen ez bazen oztopo izango zelako. Gairen bat nabarmendu beharra dago: ez da udalaren eskumena, Eusko Jaurlaritzarena baizik, lehendik argitaratuta baitzegoen joaten zirela eta nola egingo ziren

Dña. Keltse Eiguren Alberdi responde. En fecha 15 de noviembre se mandó solicitud de informe a Protección Civil desde el Gobierno Vasco que es quien autoriza ese tipo de pruebas deportivas. La Dirección de Trafico publicó datos sobre la prueba el 15 de diciembre. El lugar de la queja está a 2 km del inicio de la prueba. El corte de tráfico no fue superior a 10 minutos, se hizo para proteger la integridad de las personas que participaban. Al vehículo se le indicó que debía seguir porque ya se acercaba la cabeza de la carrera y si no se movía iba a suponer un obstáculo para la misma. Quiere resaltar alguna cuestión: No es competencia municipal, sino del Gobierno Vasco, que ya había publicado que se iban y como se iban

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



trafiko mozketak. Udalak ekitaldiak beste modu batera iragartzeko eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari, herritarrekiko komunikazioa hobetzeko. Agentearen tratua presazkoa izan zen, lasterketa buruaren gertutasun egoeragatik, eta mozketak ez zuen hamar minutu baino gehiago iraun.

a producir los cortes de tráfico. Desde el Ayuntamiento se pedirá al Gobierno Vasco que se anuncie de otra forma los eventos, para mejorar la comunicación con la ciudadanía. El trato del agente fue presuroso por la situación de proximidad de la cabeza de carrera, y el corte no duró más de diez minutos.

**3.2.- EH BILDU; 0 km-ko produktuei buruzko galdera. Sarrera-erregistroa: 39575.**

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak adierazi du ez dakiela zer galderari buruz ari den, eta egiaztatu da akats bat dagoela erregistro-zenbakiaren transkripzioan, benetan 39475.a baita.

Keltse Eiguren Alberdi andreak Km 0 eta lehen sektoreko produktuak merkaturatzeari buruzko abenduaren lauko galdera irakurri du. Jarraian, Iñigo Urkiza zinegotziak, bilkurara etorri ez denak, egindako galderari idatziz emandako erantzunak irakurri ditu, eta adierazi du zalantzak sortzen badira azken horri planteatu beharko zaizkiola.

Deialdiaren gai-zerrendan dagoen akatsa zuzenduko dela adierazi du, galderaren erregistroko zenbakiak dantzan agertzen baitziren.

**3.2.- EH BILDU; Pregunta sobre productos de Km. 0. Registro de entrada: 39575**

D. Ibon Rodriguez Larrinaga indica que no sabe a qué pregunta se refiere y se comprueba que hay una errata en la trascripción del número de registro, que es en realidad el 39475.

Dña. Keltse Eiguren Alberdi procede a la lectura de la pregunta de fecha cuatro de diciembre, que se refiere a la comercialización de productos Km 0 y productos del sector primario. Y seguidamente lee las respuestas escritas dadas a la pregunta por el concejal D. Iñigo Urkiza, ausente de la sesión, indicando que si surgen dudas deberán ser planteadas a este último.

Manifiesta que se corregirá el error existente en el Orden del Día de la convocatoria, que aparecían bailados los números del registro de la pregunta.

**3.3.- EH BILDU; Udaltzaingoak herritarrekin dituen harremanei dagokienez duen jarduketa protokoloari eta prestakuntzari buruzko galdera. Sarrera erregistroa: 1646**

Itsaso Maseda Saratxo andreak ozen irakurri du.

**3.3.- EH BILDU; Pregunta sobre protocolo de actuación de la Policía municipal en su relación con la ciudadanía y formación. Registro de entrada: 1646**

Dña. Itsaso Maseda Saratxo procede a su lectura en voz alta.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Keltse Eiguren Alberdi andreak erantzun dio. Adierazi du udaltzaingoak ez duela jarduteko protokolorik ezarrita herritarrekiko tratuan, hori ez baita jokatzeko modua. Dagoena lege-mailako arau bat da, protokolo hutsa baino handiagoa dena. Polizia-erregelamendua aplikatzen da, gaur egun berrikusten eta erreformatzen ari dena, Poliziaren Legearen 5. aldaketa indarrean sartu delako, eta, batez ere, Poliziaren Legea (28tik 38ra bitarteko artikuluetan) agenteen kode deontologikoa zein den adierazten duena. Legeak 30. artikulua gehitzen du, herritarrekiko tratuak nolakoa izan behar duen adierazten duen erregelamendura eramango da, eta 30 bis artikuluak mekanismo berri bat arautzen du aplikazioan: erregelamendu berrian sartzeko lantzen ari den polizia-jardueraren kontrolerako mekanismoak.

Argi dago tratu desegokia atzematen bada, zein den kontuan hartuta, eragileekin kontrastatzen dela, eta ikusten da ea posible den diziplina-zuzenketa aplikatzea, urratu denaren arabera.

Era berean, bizilagunak kexatzen badira, zinegotziarekin bilera eginez edo AQSen bidez jarduketak berrikusten dira eta horren arabera jarduten da. Kontuan hartzen ez direnak zirkuitu egokitik ez datozen kexak dira, sare sozialetan zintzilikatzen direnak, ezin direlako hartu.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak adierazi du zaila dela agente batekin gatazkarik izan den egiaztatzea; izan ere, berari ere gertatu zaio. Salaketarik ez badago, argi dago ez dagoela diziplina-neurririk, baina, era berean, sare sozialetan kexak badaude eta nolabaiteko errepikapena dagoela ikusten bada, neurriak hartu beharko dira, normalean "Solasa delarik, haria baita".

Keltse Eiguren Alberdi andreak adierazi du argi dagoela pertsona bakoitza desberdina

Responde Dña. Keltse Eiguren Alberdi. Indica que la policía local no tiene establecido un protocolo de actuación en su trato con la ciudadanía puesto que esta no es la forma de actuar. Lo que hay es una norma de rango legal que es mayor que un mero protocolo. Se aplica el reglamento de policía que además se está revisando y reformando actualmente por la entrada en vigor de la 5º modificación de la Ley de Policía y sobre todo la ley de Policía en sus artículos del 28 al 38 que indica cual es el código deontológico de los agentes. La ley añade el art. 30 que se traspondrá al reglamento que indica cómo ha de ser el trato con la ciudadanía y el 30 bis regula un nuevo mecanismo en la aplicación: mecanismos de control de la actividad policial que se está trabajando para incluirlo en el nuevo reglamento.

Está claro que si se detecta un trato inadecuado, según cual sea, se contrasta con los agentes y se ve si cabe la aplicación de corrección disciplinaria en función de qué se haya vulnerado.

También si se quejan los vecinos bien vía reunión con la propia concejala, bien a través de los AQS se revisan las actuaciones y se actúa. Lo que no se tiene en cuenta son las quejas que no vienen por el circuito adecuado, las que se cuelgan en RRSS, porque no se pueden acoger.

D. Ibon Rodriguez Larrinaga indica la dificultad de comprobar que haya habido conflicto con un agente, de hecho le ha pasado a él mismo. Si no hay denuncia está claro que no caben medidas disciplinarias, pero también, si hay quejas en las RRSS y se ve que hay algún tipo de reiteración habría que tomar medidas porque "cuando el río suena, agua lleva".

Dña. Keltse Eiguren Alberdi indica que está claro que cada persona es diferente y tiene

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



dela eta jarrera desberdinak dituela, eta gehiago kolektibo heterogeneoa delako, bera arduratzen da eta ez dio garrantzirik kendu nahi gaiari; izan ere, polizia da herritarrarekin lehen kontaktua duena, zehapenak ezarri behar dituelako, eta agentearen jokabidea nahastu ohi da zehapenaren aurkako alegazioetan; askotan era honetako egoerak sorteen dira ikastetxeetara sartzeko eta handik ateratzeko orduetan.

distintas actitudes y más porque se trata de un colectivo heterogéneo, a ella le preocupa y no quiere quitar importancia al tema, porque la policía es quien tiene el primer contacto con el ciudadano porque tiene que imponer sanciones y se suele mezclar el comportamiento del agente en las alegaciones frente a la sanción, la mayoría de las veces se dan situaciones en este sentido en las horas y zonas de entrada a los colegios.

Hala ere, herritarrei tratu zuzena ematen jarraituko behar dela erantzun du; eta hori berretsiko dela. Akademiako ikastaroez gain, udalak beste ikastaro batzuk ere eman ditu: elkarrizketa-trebetasunak eta herritarrengandik hurbil dagoen poliziaren arlokoak. Kasu horietan ere prestakuntza ematen jarraituko da.

Sin embargo, a la pregunta responde que se seguirá insistiendo en un trato correcto a la ciudadanía. Aparte de los cursos de la Academia, el ayuntamiento también ha dado cursos obligatorios en habilidades conversacionales y en materia de policía cercana a la ciudadanía. Se seguirá formando en estos casos.

Keltse Eiguren Alberdi andreak nabarmendu nahi du poliziaren lana, normalean, tentsio-egoeretan eta kalean egiten dela, eta adierazi nahi du eskerrak ere jaso direla, bai ekitaldietan nahiz zereginetan izandako polizia-jarduketengatik, eta laguntza ematen diela herritarrei, bai eta norbanakoei ere.

Dña. Keltse Eiguren Alberdi quiere poner en valor que el trabajo de la policía normalmente se realiza en situaciones de tensión y en la calle. Y quiere hacer constar que también se han recibido agradecimientos, tanto por la actuación policial en eventos como en tareas da ayuda a los ciudadanos e igualmente a título individual.

Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak joan den hileko gai bati buruz galdetu du, beste erakunde batzuekin hitzarmenak sinatzeko ekimenari buruz. Galdetu zuen eta inork ez zuen erantzuten jakin; beraz, galdetu zuen ea Udalak beste erakunde batzuekin hitzarmenak sinatu nahi dituen, nori zuzendu beharko litzaiokeen (kohesio soziala, ingurumena …).

D. Ibon Rodriguez Larrinaga pregunta por un asunto del mes pasado, sobre la iniciativa de firmar convenios con otras instituciones. Preguntó y nadie le supo responder, por lo que pregunta si el Ayuntamiento quiere firmar convenios con otras entidades, a quien tendría que dirigirse (cohesión social, medio ambiente…).

Keltse Eiguren Alberdi andreak adierazi du dena hitzarmenaren edukiaren araberakoa dela, baina gaia hain zabala denez, Ibon Rodriguez Larrinaga jaunak planteatu du agian alkateak sinatu beharko duela; Keltse

Dña. Keltse Eiguren Alberdi indica que todo depende del contenido del convenio en cuestión, pero como el tema es tan amplio, D. Ibon Rodriguez Larrinaga plantea que igual deberá firmar la alcaldesa; Dña. Keltse Eiguren Alberdi indica que como estos

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Eiguren Alberdi andreak adierazi du une horiek oraindik aldaketa-uneak direnez eta egokitzen ari direnez, ikusi beharko litzatekeela zein den hitzarmen zehatza eta zein gai hartzen duen bere baitan; izan ere, alkatetzaren gai erabakigarria bada, proposamena dagokion batzordeari zuzendu ahal izango zaio, azter dezan.

momentos aún son de cambio y se están adaptando, habría que ver cuál es el convenio en concreto y que materia cubre, porque si es una cuestión determinante de alcaldía se podrá dirigir la propuesta a la comisión correspondiente para su estudio.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, batzordeburu andreak bilkura bukatutzat eman du egun horretako 11.56 direnean, horrela, bere emaitzarekin akta hau luzatu da, nirekin batera Batzordeburu andreak ere sinatu duela, hori guztia nik, idazkari naizenak, ziurtatzen dut.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Sra. Presidenta levantó la sesión siendo las 11.56 horas de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando conmigo la Sra. Presidenta, de todo lo cual yo, la Secretaria, doy fe.